5. Hilabeteko Iruzkina
2008ko Ekaina

Nota Mensual nº 5
Junio de 2008





## 50 urte Europar Batasunaren sorreratik eta 20 urte Gipuzkoa bertan dagoenetik:

## Gizarte eragina eta etorkizunerako begirada

Ospakizun hauek direla eta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak argitalpen berri bat kaleratu du.

Joan den urtearen amaieran ospatu zen Jardunaldian egindako ekarpenak jasotzen ditu argitalpen honek.

Aztertu diren gaien garrantzia, aurkeztutako ponentzien kalitate maila handia eta horietan parte hartu dutenen goi kualifikazio eta ordezkaritza maila kontuan izanik, ponentzia guztiak jasotzen dituen argitalpen bat kaleratzea erabaki da.

Europa mailan, epe ertain eta luzera begira, geure etorkizuna bideratzen laguntzea da argitalpen honen azken xedea.

Argitalpen hau eskuratzeko: *www.gipuzkoa.net*

## Gipuzkoak Europan duen gaur egungo egoerari eta etorkizunari buruzko hausnarketarako hiru gai nagusi

Gipuzkoa Europar Batasunera gehitu zenetik, beronen ezaugarri izan dira hedapen ekonomiko nabarmena eta gipuzkoarren ongizatearen hobekuntza etengabea.

Horretan eragin nabarmena izan dute Europar Batasunak bultzatutako egonkortasun ekonomikoak eta gizarte garapenak, baita komunitateak Gipuzkoako proiektuak finkatzeko egin dituen ekarpenak ere.

Hasierako hausnarketa hau, burutu den bilakaera txostenarekin batera, hiru aztergai nagusiak lantzeko oinarria izan da:

## 50 años de la Unión Europea y 20 años de Gipuzkoa en la Unión:

## Impacto en la sociedad guipuzcoana y una mirada al futuro

El Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa ha editado una publicación al hilo de dichas conmemoraciones.

Esta publicación recoge las aportaciones efectuadas en una Jornada de reflexión celebrada a finales del año pasado.

La relevancia de los temas abordados y la alta calidad de las ponencias presentadas, así como la elevada cualificación y representatividad de las personas que intervinieron nos han aconsejado proceder a editar una publicación con dichas ponencias.

El objetivo de la publicación es servir de referencia para orientar nuestro futuro a medio y largo plazo en el ámbito europeo.

Acceso a la publicación: *www.gipuzkoa.net*

## Tres grandes temas para la reflexión sobre el presente y el futuro de Gipuzkoa en Europa

Desde su incorporación a Europa Gipuzkoa ha atravesado un periodo de una notable expansión económica, acompañado de una apreciable mejora del bienestar de la ciudadanía guipuzcoana.

El marco de estabilidad económica y de desarrollo social impulsado desde la Unión Europea, así como la aportación de financiación comunitaria han contribuido indudablemente a dicha evolución.

Esta reflexión inicial, junto con un informe de evolución realizado a tal efecto, han constituido la base para abordar los tres grandes temas objeto de análisis:

gipuzkoako go ogasuna

- Europar Batasuna, Euskal Autonomia Erkidegoa eta Gipuzkoa: etorkizunerako begirada

- Gipuzkoako ekonomia eta hezkuntza errealitatea Europar Batasunaren eremuan: azken 20 urteotako ikuspuntua, eta etorkizuna.

- Gipuzkoako gizarte errealitatea Europar Batasunaren eremuan: azken 20 urteotako ikuspuntua, eta etorkizuna.

Ondoren, jardunaldiko bederatzi ponentzietan aurkeztu ziren ideia nagusiak laburbiltzen dira.

Hizlariak ondorengoak izan ziren:

- Juan Jose Ibarretxe - Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria
- Markel Olano - Gipuzkoako diputatu nagusia
- Gurutz Jauregui - Konstituzio Zuzenbideko katedraduna
- Adrian Celaya - MCCko idazkari nagusia
- Cristina Uriarte - UPV/EHUko Gipuzkoako campuseko erretoreordea
- Pello Gonzalez - Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua
- Arantxa Urretabizkaia - Idazle eta kazetaria
- Iñigo Lamarca - Arartekoa
- Maite Etxaniz - Gizarte Politikako Departamentuko foru diputatua

- La Unión Europea, Euskadi y Gipuzkoa : una mirada al futuro : la visión europea desde Euskadi y Gipuzkoa.

- La realidad económica y educativa de Gipuzkoa en el ámbito de la Unión Europea :20 de años desde la adhesión y perspectivas.

- La realidad social de Gipuzkoa en el ámbito de la Unión Europea : 20 años desde la adhesión y perspectivas.

A continuación se presenta una breve síntesis de las principales ideas presentadas por los nueve ponentes participantes.

Los ponentes fueron los siguientes:

- Juan Jose Ibarretxe - Lehendakari del Gobierno Vasco
- Markel Olano - Diputado General de Gipuzkoa
- Gurutz Jáuregui - Catedrático de Derecho Constitucional
- Adrian Celaya - Secretario General de MCC
- Cristina Uriarte - Vicerrectora del campus de Gipuzkoa de la UPV/EHU
- Pello Gonzalez - Diputado de Hacienda y Finanzas
- Arantxa Urretabizkaia - Escritora y periodista
- Iñigo Lamarca - Ararteko
- Maite Etxaniz - Diputada de Política Social



Jarraian, aurkeztuz iren ideia nagusiak laburbiltzen dira:

**Juan Jose Ibarretxe. Lau hausnarketa Europa eta Europaren etorkizunari buruz**

- Europa aukera handia izan da, gaur egun aukera handia da, eta aurrerantzean ere aukera handia izango da gure ekonomiarako, gure gizarterako, eta Gipuzkoar zein euskal ekonomiarako.

- Europa aukera bat da, izan ere, lidergo politiko baten faltak eragindako krisi sakon batean beti dago aukera ekonomikoa, politikoa eta soziala.

- Kontzertu ekonomikoa esportatu beharreko ideia bat da; izan ere, lagundu egingo luke zerga harmonizazioaren ikuspegitik gaur egun Europan ematen ari diren arazoek sortzen duten paralisia konpontzen.

- Europatik kanpo ez dago etorkizunik. Ez Gipuzkoarentzat, ez Euskadirentzat, ez Kataluniarentzat ezta Espainiarentzat edo Frantziarentzat ere. Et ahori onartu behar dugu, gure etorkizuna eta Europaren etorkizuna lotuta daudela eta posible dela, nola ez, bertan identitatea defenditzea.

A continuación se recoge una breve síntesis de algunas de las principales ideas presentadas.

**Juan Jose Ibarretxe. Cuatro reflexiones sobre Europa y su futuro**

- Europa ha sido, es y seguirá siendo una gran oportunidad para nuestra economía, para nuestra sociedad, para la sociedad guipuzcoana y para la sociedad vasca en los próximos tiempos.

- Europa es una oportunidad, ya que en una crisis profunda, derivada de la falta de liderazgo político, siempre hay una oportunidad, económica, política y social.

- El sistema del concierto económico constituye una idea a exportar porque permitiría resolver gran parte de los problemas que hoy motivan la parálisis que desde el punto de vista de la armonización fiscal, se están produciendo en Europa.

- No hay futuro fuera de Europa. Ni para Gipuzkoa, ni para Euskadi, ni para Cataluña, España o Francia. Debemos asumir que nuestro futuro está unido al de Europa y que es posible defender nuestra identidad en la misma.



## Markel Olano. Gipuzkoa eta Europar Batasuna, etorkizun partekatua

- Orain artean lortu dena asko izan arren, ezin gaitezke lorpen horien deskribapenean geratu soilik. Aurrera begiratu behar dugu. Europar Batasunaren sendotasunak geure egin behar ditugu, ez dugu beste biderik.
- Europak gobernatzeko eredu berriak exijitzen dizkigu, erregioak eta tokiko agintariak kontutan hartuz. Honek, biztanleriarengana gerturatu eta berau motibatzen lagunduko liguke.
- Aurkezten zaizkigun erronkei aurre egiteko, Gipuzkoak Europaren beharra du, izan ere, Europa, biztanleentzat aukeraz beterik dago.
- Hori da Gipuzkoak Europarekiko nahi duena: lehiatu, gainontzeko lurraldeekiko lankidetza garatu eta elkartasunez jokatu guztiekin.

## Gurutz Jauregi. Lisboako Ituna, erregioen gaia eta Europar Batasunaren etorkizuna

- Konstituzio Ituna indarrean sartzeko prozesua geldiarazteak Europar Batasuna zalantzaz beteriko impasse batean egotea eragin du.
- Benetan integratzailea den bateratzeko prozesua garatu ahal izateko garrantzia handia duten bi arazo: Europako erakundeetan dagoen defizit demokratikoa eta Europak munduko potentzia gisa izan duen eklipsea.
- Etorkizuneko Europaren oinarria ezin da soilik ekonomia izan, ezta politika ere. Oinarria bestelako alderdietan finkatu behar da, hala nola, kultura, balioak, idealak.
- Beharrezkoa da gizarte kontratu berri baten oinarriak ezartzea, gizabanakoei eta gizarte zibilari protagonismo handiagoa emanez eta, era berean, harreman berri bat, oreka berri bat ezartzea herritar, talde, kolektibitate, erregio, nazio, estatu, eta abar.

## Markel Olano.Gipuzkoa y la Unión Europea, un futuro común

- A pesar de la importancia de los logros alcanzados desde la incorporación, no nos podemos quedar ahí, sino que debemos mirar hacia delante, no tenemos otro camino que convertir la fortaleza de Europa en nuestra fortaleza.
- Europa nos exige nuevos modelos de gobernanza, tomando en consideración a las regiones y las autoridades locales, lo que acercaría y motivaría a los ciudadanos.
- Para superar los retos a afrontar desde Gipuzkoa necesitamos a Europa. Europa entendida como un amplio espacio de oportunidades para nuestros ciudadanos.
- Esto es lo que desea Gipuzkoa respecto a Europa: competir, colaborando con los demás territorios europeos y en solidaridad con todos ellos.

## Gurutz Jauregui. El tratado de Lisboa, la cuestión regional y el futuro de la UE

- La paralización de la entrada en vigor del Tratado Constitucional ha situado el futuro de la Unión Europea en un impasse lleno de incertidumbres.
- Dos problemas de gran importancia para el desarrollo de un proceso de unificación europeo realmente integrador: el déficit democrático existente en las instituciones europeas y el eclipse de Europa como potencia mundial.
- La Europa del futuro no debe descansar exclusivamente en la economía, ni tan siquiera en la política sino, sobre todo, en la cultura, en los valores, en los ideales.
- Es necesario establecer las bases de un nuevo contrato social, otorgando mayor protagonismo a los individuos y a la sociedad civil y establecer una nueva relación, un nuevo equilibrio entre ciudadanos, grupos, colectividades, regiones, naciones, estados, etc.

## Adrian Celaya. Ekonomia eta hezkuntzaren errealitatea eta etorkizuna

- Enpresa esparruko erronkak: egitura aurreratua sustatzea eta garapen bidean dauden herrialdeen erronkei aurre egitea, balio erantsiaren sorrera bizkortuz.
- Hezkuntza arloko erronka: Unibertsitateak enpresarekin duen erlazioa eta etengabeko prestakuntza. Lehiakorra den hezkuntza beharra.
- Administrazioaren erronka: inguru lehiakorrik gabe, erakunde publiko eraginkor eta berritzailerik gabe eta lankidetza-publiko zein –pribaturik gabe, ezinezkoa da enpresa lehiakorrak izatea.
- Pertsonak: egiturak ez dira ezer pertsonak izan ezean. Beharrezkoa da aktiboak eta sortzaileak diren eta laguntzeko prest dauden pertsonak izatea.
- Epe luzeko ikuspegia: enpresa eta erakundeek, benetan aktiboa den biztanleria sustatzen duten neurri eraginkorrak hartu beharko dituzte, pertsonek erabaki hartze prozesuetan konpromisoa har dezaten.

## Adrian Celaya. Realidad y perspectivas de la economía y de la educación

- Retos empresariales, impulsar un tejido avanzado y hacer frente al reto de los países emergentes, acelerando la creación de valor añadido.
- Reto educativo: la Universidad y su relación con la empresa y la formación a lo largo de la vida. Necesidad de educación competitiva.
- Reto de la administración: es imposible tener empresas competitivas sin entornos competitivos, sin entes públicos eficaces e innovadores y de colaboración público-privada.
- Las personas: las estructuras no son nada sin las personas, se necesitan personas activas, creativas y cooperadoras.
- Visión a largo plazo: empresas e instituciones deben adoptar medidas efectivas de impulso de la ciudadanía verdaderamente activa, comprometiendo más a las personas en la toma de decisiones.

## Cristina Uriarte. EHU eta Gipuzkoako Campusa Europar Batasunari atxiki zirenetik

- Unibertsitateak, lurraldeko garapen ekonomikorako bazkide gakoak dira. Gipuzkoako campusean, 27 titulazio eta 14.000 ikasle daude.
- Eragina du Ezagutzaren gainean (zientzia, teknika eta kultura sortu, garatu eta kritikatu), ezagutzaren jatorria den Ikerketaren gainean, enpresa esparruko berrikuntzan (unibertsitateko spin-offei esker) eta etengabeko prestakuntzan.
- Etorkizunerantz, Europako esparruan: hasierako prestakuntza, etengabeko prestakuntzarekin osatzea, modu erraz eta moldakorrean inguruko beharrei egokitzea, nazioartekotzea, ikerketa eta lankidetza eta hezkuntza eta ikerketa esparruetan berritzaileak diren ekimenak garatzea.

## Cristina Uriarte. La UPV y el Campus de Gipuzkoa desde la adhesión

- Las universidades, socios clave del desarrollo económico territorial .El campus de Gipuzkoa, oferta 27 titulaciones y cuenta con 14.000 alumnos.
- Impactos sobre el Conocimiento (generar, desarrollar y criticar la ciencia, la técnica y la cultura), sobre la Investigación, origen del conocimiento, en la Innovación empresarial, a través de la creación de spin-offs universitarios y en la formación a lo largo de la vida.
- Hacia el futuro, en el marco europeo: complementar formación inicial con formación continua, adaptación flexible y ágil a las necesidades del entorno, internacionalización, investigación y cooperación e iniciativas innovadoras en materia de docencia e investigación.

## Pello Gonzalez. Hogei urte Gipuzkoa Europar Batasunean dagoenetik

- Azken hogei urteotan Gipuzkoan eman den gizarte eta ekonomia aldaketa oso intentsua izan da. Horren adierazgarri, biztanleko errenta erreala bikoiztu egin da.
- 350 milioi euroko laguntza jaso da Europako fondoetatik. Administrazio guztiak kontutan hartuz gero kopuru hau hirukoiztu egiten da. Europar Batasunean sartzeari dagokionean, biztanleriak aldeko iritzia du; dena den, etorkizunera begira oraindik ere hainbat zalantza daude.
- Zerga politikaren esparruan, Gipuzkoak kudeaketa eta ikustatzeko eskumenak bereganatu ditu, eta baita, zuzeneko zerga guztien eta zeharkako zerga batzuen eskumen arau-emaile osoa ere.
- Etorkizuneko erronkak: lortu den ongizate ekonomiko eta soziala mantendu eta hobetzea, Europako lurralde aurreratuenen artean kokatuz.

## Arantxa Urretabizkaia. Gipuzkoako gizartearen errealitatea, ikuspegi pertsonal bat

- Gu, emakumeok: beharrezkoa da, emakumeen XX. mendean zehar burutu duten esfortzua aintzat hartzea.
- Zahartzaroaren erronka, gizarte erronka: demografia aldaketak ez du sortu zahartzaroaren eredu berririk, beste modu batean zahartzen ikasi behar dugu, modu aktiboago batean eta zahartzaroa aldarrikatuz.
- Euskararen erronka: dirua eta borondate politikoaz gain, gizarte osoaren bultzada beharrezkoa izango da euskara sustatzen jarraitu nahi bada.
- Kulturaren erronka: gure gizarteak ez dio hainbat kultur sortzaileri merezi duen eskerrona eskaini.

## Pello Gonzalez. Veinte años de Gipuzkoa en la Unión Europea

- En los últimos veinte años el cambio social y económico ha sido intenso. Como indicador de ello, la renta real per capita se ha duplicado.
- Hemos recibido directamente 350 millones de euros de los fondos comunitarios, cantidad que casi se triplica si se incluyen todas las administraciones. Y la ciudadanía valora favorablemente la pertenencia a la Unión Europea, existiendo no obstante interrogantes con relación a su futuro.
- El ejercicio de competencias en política tributaria durante este periodo se plasma en la asunción de competencias recaudatorias, de gestión e inspección y en la asunción de competencia normativa plena en todos los impuestos directos y algunos indirectos.
- Retos futuros: mantener y mejorar la situación alcanzada de bienestar económico y social, situándonos entre los territorios más avanzados de Europa.

## Arantxa Urretabizkaia. La realidad social de Gipuzkoa, una visión personal

- Nosotras: necesidad de reconocimiento del gran esfuerzo realizado por las mujeres a lo largo del siglo XX.
- El reto del envejecimiento, reto de toda la sociedad: el cambio demográfico aún no ha creado una nueva imagen de la vejez, tenemos que aprender a envejecer de otro modo, más activo y proclamar la vejez.
- El reto del euskera: la prolongación del impulso requiere junto con la voluntad política y el dinero, el impulso de toda una sociedad.
- El reto de la cultura: nuestra sociedad no ha sabido agradecer y reconocer lo suficiente el trabajo de muchos creadores del mundo de la cultura.

## Iñigo Lamarca. Administrazio publikoen politiken erronkak

- Gizarte errealitateak, berezko entitatea duten eta, aldi berean, elkarri lotuta dauden gai asko barne hartzen ditu. Berehalako etorkizunak aurkezten dituen erronkak zehaztea du helburu.
- Nabarmenak ez izan arren, aldaketak etengabe ematen ari dira: biztanleria heldua, atzerritik datozen biztanleak, aldaketak familia-ereduetan eta antolaketan, …
- Erronkak gizarte eskaera eta behar berrien aurrean: ekitatea, gutxieneko gizarte eskubideak, koordinazioa eta “sarean” lan egitea, diskriminazio faktoreak antzeman eta desagerraraztea, esku hartzea, ebaluatzea eta gizarte sentsibilizazioa.
- Europako iparraldeko herrialdeek duten antzeko maila eskaintzen duen gizarte politika batek, politika sektorial guztiak parametro komunen azpian bildu beharko lituzke. Politika horiek berdintasun, ekitate, gizarteratze eta gizarte-kohesioaren zerbitzura jarri beharko lituzke armonikoki eta, ondorioz, bazterketa, diskriminazioa, pobrezia eta desberdintasuna errotik ezabatzea lortu beharko luke.

## Maite Etxaniz. Gipuzkoako Foru Aldundiaren gizarte-politika

- Azken 20-25 urteotan, Gizarte politikak aldaketa nabarmenak jasan ditu, gizartearen antolaketan eta beharretan eman diren aldaketekin batera.
- Zahartzaroaren erronka: zahartzarora iristean bizi baldintza hobeak, arreta emateko eredu iraunkorra, adostua eta zerbitzu egokia emango duena.
- Familiako eta laneko bizitza uztartu eta emakumeen aurkako indarkeria saihesteko erronka.
- Immigrazio eta kultura aniztasunaren erronka, gizarte eta kultura ekarpena.
- Pobreziaren eta gizarte bazterketaren erronka, profilak aldatzea.
- Ezintasunak dituzten pertsonen erronka, hezkuntza, enplegu babestua.
- Mendekotasunaren erronka, Legea betetzea.
- “Ongizatearen Gipuzkoa”, etorkizuneko oinarria, gizartea erronka berriei aurre egiteko prestatuz eta solidaritatea bezalako balioak garatuz.

## Iñigo Lamarca. Los retos de las políticas de las administraciones públicas

- La realidad social incluye muchas cuestiones con entidad propia y, al mismo tiempo, entrelazadas entre sí. Centrado en trazar los retos del futuro inmediato.
- Los cambios se están produciendo de manera a veces poco perceptible pero imparable: población mayor, población de origen extranjero, cambio de la organización y modelos familiares,….
- Retos ante las nuevas necesidades y demandas sociales: equidad, derechos sociales mínimos, coordinación y trabajo “en red”, detección, erradicación de factores de discriminación, participación, evaluación y sensibilización social.
- Una política social que alcance niveles asimilables a los países nordeuropeos integrando bajo parámetros comunes y armónicamente todas las políticas sectoriales al servicio de la igualdad, la equidad, la inclusión y la cohesión social y de la erradicación de la exclusión, la discriminación, la pobreza y la desigualdad.

## Maite Etxaniz. La política social de la Diputación Foral de Gipuzkoa

- Cambios significativos en los últimos 20-25 años en la política social, en consonancia con el cambio de las necesidades y modos de organización social.
- Reto del envejecimiento: mejora de condiciones de llegada, definición de un modelo de atención sostenible, consensuado y suficiente.
- Reto de la conciliación de la vida laboral y familiar y de erradicación de la violencia de género.
- Reto de la inmigración y la diversidad cultural, integración cultural y social.
- Reto de la pobreza y de la marginación o exclusión social, cambio de perfiles.
- Reto de las personas con discapacidad, educación, empleo protegido.
- Reto de la atención a la dependencia, aplicación de la Ley.
- La “Gipuzkoa del Bienestar” pilar del futuro, preparando a la sociedad para afrontar los nuevos retos y desarrollando valores como la solidaridad.

gipuzkoako go ogasuna